

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Diruaren erabilera likitsak

Pedro Ruizek Pepe Barrionuevo elkarrizketatu zuen duela ez asko *La noche abierta* programan. Santu baten pare ikusi genuen GAL garaian Madrilgo Barne ministro izandakoa. Herenegun gauean, berriz, Alfonso Guerra elkarrizketatu zuen Ruizek. *Latin lover* baten pare agertu zigun Ruizek Felipe Gonzalezen aginte garaian presidenteorde izandako gizona. Koipekeriak alde batera utzita, dirua izan zuten hizpide elkarrizketaren puska eder batean. Munduko dirua zein gaizki banatua dago-



J.L. PINO / EFE
Alfonso Guerra.

en; diruarekin zein harreman bitxia daukan Guerrak berak; eta, baita ere, zein harreman bitxiak dauden espainiar zintzo guztiek munduko borondate onenarekin ordaintzen dituzten zergen eta ETaren artean. Denok entenditzeko moduan azaldu zuen bere tesia Guerrak: Espainian bildutako zergen parte bat Batasunari orain arteko legeak hala diolako ematea astakeria da, Batasunak diru hori ETari ematen diolako. Eta hori, diru publikoaren erabilera likitsa da. Eskerrak tartean-tartean norbaitek guri begiak zabaltzeko lana hartzen duen! Gainerakoan, ongi. Eguraldi hezeegia gure hezurretarako, agian. Duintasuna herdoiltzen ez digun bitartean...

LABURAEAN

Europako Batzordeak ez ditu Espainia, Grezia eta Portugal salatuko Mugarik Gabeko Telebistaren agindua hausteagatik

Espainia, Grezia eta Portugal Europako Batzordeak onartutako Mugarik Gabeko Telebista izeneko agindua hautsi dute. Hala ere, Bruselak ez ditu herrialdeok Europako Batasuneko Justizian salatuko publikitate kopuru handiegia eskaintzeagatik. Horren ordez, Europako batzordeak herrialde horiekin negoziazioak hasiko ditu, zigorra hitzartzeko. Europako Batzordeak publikitate kopurua murriztea nahi izan du duela hilabete batzuk emandako aginduaren bidez.

Espainiako sindikatuek programa grabatuak eta albistegi laburrak nahi dituzte ekainaren 20an

TVE Espainiako telebista publikoak eskaini behar dituen gutxieneko zerbitzuen proposamena egin zuten atzo CCOO eta UGT sindikatuek, Espainian ekainaren 20an greba orokorrerako deialdia dela eta. Sindikatuek TVEak programa grabatuak eta albistegi laburrak eskaintzea proposatu dute, hala gutxieneko zerbitzuak betetzeko. Bestalde, RTVE-ko kontseilua greba deialdiaren inguruko eztabaidak antolatzea aztertzen ari da.

Auzitegi Konstituzionala Portugalgo Gobernuaren aurka, legea dela eta

Portugalgo Gobernuak Telebista Lege berria onartu zuen duela gutxi, eta horren bidez telebista publikoak ez zituen atzera bota Gobernuak hango kontseilurako izendatutako pertsonak. Auzitegi Konstituzionala, ordea, lege horren aurka azaldu da, eta atzera botako du.

ETB1. Betizu klubak lehen jaia ospatuko du hilaren 15ean, bere 15.000 bazkideekin batera

Bazkideentzat gozatu ederra



ETB1
Betizu saioko aurkezleak eta Andoni Ortuzarrek aurkeztu zuten Betizu Jaia.

Txirri, Mirri eta Txiribiton, Kukubiltxo, Alaitz eta Maider eta Ken-7 ariko dira, besteak beste

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Telebistako Betizu Klubak jaia egingo du hilaren 15ean Bilboko Erakustazokan. Taldeko 15.000 bazkideak gonbidatu dituzte ekitaldira. Hantxe izango dituzte Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak, Kukubiltxo antzerki taldea, eta Alaitz eta Maider eta Ken-7 musika taldeak. Betizu klub arrakastuaren lehen jai erraldoia izango da, eta litekeena da aurreantzean urtero egitea.

Betizu-ko aurpegi ezagunak eta EITBko zuzendari nagusi Andoni Ortuzarrek eskainitako

prentsaurrekoan atzo jakinarazi zuten, sarrera doan izango dute bazkideek. Kide horiek gutuna jasoko dute etxean, lau lagun gehiagorentzako gonbitarekin batera. Hala, bazkide ez diren hurrek ere izango dute parada Erakustazokara sartzeko.

Andoni Ortuzar gustura azaldu zen antolatu duten jai erraldoiarekin. «Horrelako ekimenak telebistatik haratago doaz», esan zuen EITBko arduradunak. «Guretzat oso garrantzitsua da gazteengana iristea, zorrotzak direlako ikusten dituzten telebista saioekin eta

aukeratzen dituzten beste denbora-pasekin», gaineratu zuen EITBko buruzagiak.

Betizuen Jaia adin guztietako bisitariak hartuko ditu, eta adin tarte bakoitzak bere gunea izango du. Ilaski Serrano eta Iban Garate izango dira aurkezleak ekitaldian.

Saioko tarteak hainbat gunetan antolatuko dira

ETB1eko saioa osatzen duten tarteak jaialdian izanen dira. Tailerren gunea telebistako *Mikrotxoko* atalaren parekoa izanen da, esaterako. *Betizu arena* gunean, berriz, jokoak egingen dituzte. *Gain gaina* eta *Betimu* gunetan umeek Alaitz eta Maider bikotearekin eta Ken-7 taldearekin batera kantatzeko eta dantzatzeko aukera izanen

dute. Euskadi Gazteko Disko festa ere bertan izanen da, Joseina Etxeberriaren eskutik.

Horrez gain, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak, Kukubiltxo antzerki taldea, trikitaliak eta bertsolari gazteak ariko dira jaia girotzen. Etxeko txikienek jokoak eta bestelako ekintzak egingo dituzte haurtzaindegian. Eta, jakina, opari eta sari mordoak banatuko dute Erakustazokan biltzen diren *Betizu* zaleen artean, besteak beste, bizikletak, ordenagailuak eta liburuak.

Erakustazokako ateak goizeko 10:00etan zabalduko dituzte. Ordu horretan, kanpoaldean, kalejirari ekingo diote musikari gazteek. *Betimu*, *Betizu* eta *Betisuis* haurrak agurtzen izango dira.